



## AKTA BILERA 2016/11/25: ELKARRIZKETA ZIBILERAKO MAHAIA

**Partehartzaileak:****PRESIDENTEA**

- GONZALO RODRIGUEZ AGUIRREGOITIA jn., REAS EUSKADIren ordezkari moduan, Ekonomia alternatibo eta solidarioaren sarea.

**IDAZKARIA**

- MIGUEL ANGEL HURTADO PEDROSO jn., Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Familia Politika eta Garapen Komunitarioko aholkulari juridikoa.

**KARGUAGATIKO KIDEAK (ez dute boto-eskubiderik)**

- ANGEL TOÑA GÜENAGA jn., Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburua.
- LIDE AMILIBIA BERGARETXE and. Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuordea.

**KIDEAK (boto-eskubidea dute)**

- JOSE JAVIER MIGUEL DE LA HUERTA jn., Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Familia Politika eta Garapen Komunitarioko zuzendaria.
- MIGUEL ANGEL HURTADO PEDROSO jn., Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Familia Politika eta Garapen Komunitarioko aholkulari juridikoa.
- JOSÉ ALBERTO VICENTE jn., ASTIALDI SAREaren ordezkari moduan, aisialdi arloan gizartean esku hartzeko eta Euskal Herriko haur, nerabe eta gazteak hezteko erakundearen sarea.
- ALFONSO LÓPEZ MARTÍNEZ jn., EAPN Euskadiren ordezkari moduan, pobrezia eta giza bazterketaren aurkako europar sarea Euskadin.
- PABLO MORATALLA SANTAMARÍA jn., EHLABEren ordezkari moduan, Euskal Herriko Lan Babestuaren Elkarte.
- MIKEL MALCORRA OCHOTORENA jn., ELKARTEANen ordezkari, Euskal Autonomia Erkidegoko Gutxitasun Fisikoa eta/edo Organikoa duten Pertsonen Konfederazio Koordinatzailea.
- M<sup>a</sup> JOSÉ CANO MESÍAS and., FEDEAFESen ordezkari moduan, Euskadiko Eri Psikiko eta Senide Elkarten Federakuntza.
- TXEMA ODRIUZOLA AZURMENDI jn., FEDERPENen ordezkari moduan, Euskadiko Pentsiodun eta Erretiratuen

Probintzia Elkarteetako Lurralde Federazioaren ordezkaria.

- ESTEBAN RIVAS CALZADA jn., GIZATEAren ordezkari moduan, Gizarteratzeko eta laneratzeko Euskadiko enpresen elkarte.
- TERESA MAURE and., HARRESIAK APURTUZen ordezkari moduan, Euskadiko etorkinei laguntza emateko GKE koordinatzailea.
- IÑIGO VIDAURAZAGA VIDAL jn., HIREKINen ordezkari moduan, Euskadiko Gizarte Ekimeneko eta Esku Hartzeko Entitateen Federazioa.
- NATALIA DIEZ-CABALLERO ALONSO and., HIRUKIDERen ordezkari moduan, Euskadiko Kide Ugariko Familien Elkarte.
- MANUEL MERINO PASTOR jn., LARES Euskadiren ordezkari moduan, adindunen egoitza eta arreta-zerbitzuen euskal elkarte – sektore solidarioa.
- JAVIER DOMÍNGUEZ ENTENZA jn., ONCEren ordezkari moduan, Espainiako itsuen erakunde nazionala
- GONZALO RODRIGUEZ AGUIRREGOITIA jn., REAS EUSKADIREn ordezkari moduan, Ekonomia alternatibo eta solidarioaren sarea.
- ELSA FUENTE DO-ROSARIO and., Euskadiko UNICEF batzordearen ordezkari moduan.

**GONBIDATUAK:**

- EMILIO SOLA BALLOJERA jn., Eusko Jaurlaritzako Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saileko Gizarte Zerbitzuetako zuzendaria.
- RAFAEL LÓPEZ AROSTEGUI jn. (EDE FUNDAZIOA)

**EZIN ETORRIA ADIERAZI DUTENAK**

- MILA DOMÍNGUEZ VÁZQUEZ, and. ONCEren ordezkari moduan, Espainiako itsuen erakunde nazionala.
- PABLO GONZÁLEZ GUTIÉRREZ jn., FEVASen ordezkari moduan, Ezintasun intelektuala dutenen aldeko Elkarteen Euskal Federazioaren ordezkaria.

**Lekua:**

Vitoria-Gasteiz, LAKUA II–Batzar gela: 2. zkia.

**Eguna:**

2016/11/25 (ostirala)

**Ordua:**

12:30 – 14:30

<b><u>Mota:</u></b>	Ohikoa
<b><u>Bilerako aztergaiak:</u></b>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1.– Kide berrien aurkezpena, Hirugarren sektore sozialaren ordezkariak izango direnak.</li> <li>2.– Aurreko bileren akta irakurri eta onartu, hala badagokio.</li> <li>3.– Euskadiko Elkarrizketa Zibilerako Mahaiko idazkariaren ordezkoa izendatzea.</li> <li>4.– Euskadiko hirugarren sektore soziala sustatzeko estrategiari buruzko informazioa eman.</li> <li>5. – Euskal Autonomia Erkidegoan etxerik gabeko pertsonen arretarako estrategiari buruzko informazioa eman.</li> <li>6.– Euskal Autonomia Erkidegoan Familiei Laguntzeko Erakunde Arteko III Planaren (2011-2015) ebaluazio-prozedurari buruzko informazioa eman.</li> <li>7.– Eskaerak eta galderak.</li> </ol>
<b><u>Hizkuntza:</u></b>	Gaztelania

Bilkura 2016ko azaroaren 25eko 12:45ean hasi da.

Bilkura hasita, Elkarrizketa Zibilerako Mahaiko lehendakariak, Gonzalo Rodriguez Aguirregoitia jaunak, ongietorria egin die bertan daudenei, eta etorri izana eskertu. Ondoren, bide eman die gai-zerrendako puntuei, eta emaitza honako hau izan da:

### **1.– HIRUGARREN SEKTORE SOZIALA ORDEZKATUKO DUTEN KIDE BERRIEN AURKEZPENA.**

Elkarrizketa Zibilerako Mahaiko lehendakariak lehenik esan du Elkarrizketa Zibilerako Mahaia eratu eta arautzekoa den abenduaren 11ko 283/2012 Dekretuaren 6. artikuluan kide anitzeko aipatu organoaren osaera garatzen dela, eta zehazten kideak EAEko Administrazio Orokorrekoak eta gizarte-ekintzako hirugarren sektorekoak izango direla.

Gizarte-ekintzako hirugarren sektorea ordezkatzeko dutenei dagokienez, guztira 16 izango dira, eta dekretuaren eranskinean jasotako bigarren mailako erakundeek eta sareek aukeratuko dituzte, hasiera batean, kide guztietako hamalau, eta beste bi kideak aipatu organoak Elkarrizketa Zibilerako Mahaia funtzionamendurako onartutako erregelamenduan adierazitako moduan aukeratuko dira, edo, bestela, aipatu funtzionamendu-araudia onartzen ez den bitartean, kide anitzeko organoa osatzen duten kideen gehiengo osoz.

Horretarako, jarraitu du esaten, onartutako funtzionamendu-araudirik ez zegoenez, Elkarrizketa Zibilerako Mahaia, 2016ko apirilaren 18an egindako bilera batean, deialdi bat egitea erabaki zuen, Elkarrizketa Zibilerako Mahaian hirugarren sektore soziala ordezkatzeko bi kideak izendatzeko, eta deialdia arautzeko oinarriak zehaztu zituen.

Deialdi hori 2016ko maiatzaren 17ko 92. zenbakiko EHAAn argitaratu zen, eta, ebatzi ondoren, Elkarrizketa Zibilerako Mahaia, 2016ko uztailaren 19an, UNICEF Espainiako Batzordea eta ASTIALDI SAREA (Euskal Herriko haur, nerabe eta gazteekin esku-hartze

sozialean eta aisialdi hezitzailean diharduten erakundeen sarea) Elkarrizketa Zibilerako Mahaiko kide izendatzea erabaki zuen, hirugarren sektore soziala ordezkatzeko.

Aurreko guztia azalduta, hitza eman die Elkarrizketa Zibilerako Mahaian bi erakundeak ordezkatzeko dituzten pertsonen, aurkezpen laburra egin dezaten.

Lehenik, ELSA FUENTE DO-ROSARIO andreak (UNICEF) hartu du hitza, eta bihotzez eskertu du haurrak eta nerabeak (eskubide osoko subjektu moduan) Elkarrizketa Zibilerako Mahaian ordezkatzeko aukera, eta prest agertu da haurrak eta nerabeak organoan ordezkatzeko dituzten erakundeekin, pertsonekin eta organoa osatzen duten gainerakoekin batera lan egiteko.

Bigarrenik, JOSÉ ALBERTO VICENTE (ASTIALDI SAREA) jaunak eskerrak eman ditu ordezkatzeko duen erakundearen jarritako konfiantzagatik, parte har baitezake iritzia trukatzeko, eztabaidatzeko eta erakundearen eta administrazio publikoaren artean (Eusko Jaurlaritza) lan koordinatua egiteko eta lankidetzan aritzeko aukera ematen duen gune batean.

Erantsi du ordezkatzeko duen entitateak hezkuntza-aisialdiaren esparruan diharduten elkarteak eta erakundeak biltzen dituela, eta, horregatik, eman dezakeela haurren eta gazteen kolektibora bideratuta dagoela, baina nabarmendu du entitatearen jardueraren esparrua adin ertaineko pertsonengana iristen dela. Alde horretatik, esan du ASTIALDI SAREA zer den azaltzen duen dokumentu bat utzi duela Elkarrizketa Zibilerako Mahaiko kide bakoitzarentzat.

Azkenik, adierazi du unea dela gogoeta egiteko hezkuntza-aisialdiaren garrantziaz, eta azterketa enpiriko bat egiteko, datuen bidez adierazteko zer egoeratan dagoen hezkuntza-aisialdia.

## **2.- AURREKO BILEREI BURUZKO AKTA IRAKURTzea ETA –HALA EGOKITUZ GERO– ONARTzea.**

Boto-eskubidea duten bertaratuek aho batez onartu dituzte akta hauek:

- 2016ko uztailaren 19ko bilkura arruntaren akta, zeinean Manuel Merino jaunak (LARES EUSKADI), gai-zerrendako 2. puntuaren barruan, hirugarren adineko pertsonentzako egoitzetako greba-aldietako funtsezko zerbitzuei dagokienez irakurri zuen dokumentua sartuko baita eranskin moduan.
- 2016ko irailaren 20ko ezohiko bilkuraren akta.

## **3.- EUSKADIKO ELKARRIZKETA ZIBILERAKO MAHAIKO IDAZKARIAREN ORDEZKOAREN IZENDAPENA.**

Elkarrizketa Zibilerako Mahaiko lehendakariak azaldu du ezen, organo horrek 2014ko uztailaren 11n Elkarrizketa Zibilerako Mahaiko idazkari-eginkizunen ardura hartuko zuen pertsona izendatzeko hartutako erabakian, ez zela erabaki, aipatu pertsona horren postua hutsik egonez gero, pertsona ez egonez gero, edo gaixorik egonez gero, nor izango zen ordezkoa, zeuzkan betekizun guztiak betetzeko.

Azaldutakoa kontuan hartuta, eta boto-eskubidea duten bertaratu guztiak ados daudela, honako **ERABAKI** hau hartu da:

**Bakarra:** IÑIGO VIDAURRAZAGA VIDAL jauna izendatzea Elkarrizketa Zibilerako Mahaiko idazkari titularren ordezko.

#### **4.- EUSKADIKO HIRUGARREN SEKTORE SOZIALA SUSTATZEKO ESTRATEGIARI BURUZKO INFORMAZIOA.**

Gizarte Politiketako sailburuordeak adierazi du ezen, Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legearen hirugarren xedapen gehigarrian xedatuaren arabera, Eusko Jaurlaritzak urtebeteko epea duela –aipatu legea indarrean jartzen denetik (2016ko maiatzaren 20an gertatu zen)– Euskadiko Hirugarren Sektorre Soziala Sustatzeko Estrategia egin eta onartzeko. Hori dela eta, presa dagoela nabarmendu du, ezarritako epearen erdia baino gehiago igaro delako.

Jarraian, esan du Rafael López Arostegui aditu handia dela hirugarren sektorre sozialaren munduan, oso ondo ezagutzen duela, eta, bertan dauden guztiek dakiten bezala, hirugarren sektorre sozialarekin zerikusia duten azterketa eta proiektu asko eta askotan parte hartu duela, Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialari buruzko Legea egiten esku hartzeaz gain.

Aurreko hori kontuan hartuta, Euskadiko Hirugarren Sektorre Soziala Sustatzeko Estrategia egin eta garatzeko egin beharreko lan-plana diseinatzeko ardura eman dio Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailak, strategiaren testuaren onarpenean aurrera egin eta strategiarekin zerikusia duten gizarte-eragileekin kontrastatu ahal izateko dokumentu bat edukitzeko.

Hori horrela, azkenik esan du Rafael López Arostegui jada bildu dela hirugarren sektorre sozialaren esparruari zuzen lotuta dauden edo eragiten dioten eginkizunak betetzen dituzten Gizarte Politiketako Sailburuordetzako langileekin, eta beste eragile eta entitate batzuekin ere bilduko dela.

Rafael López Arostegui hartu du hitza, eta akta honi gehitutako «I. eranskina» aurkeztu du.

Ondoren, ELSA FUENTE DO-ROSARIO andreak (UNICEF) hartu du hitza eta, egindako aurkezpen guztiz interesgarria eskertu ondoren, galdetu du ea Euskadiko hirugarren sektorre soziala sustatzeko estrategia diseinatu eta egitearekin batera lan egiten ari den Garapen jasangarrirako 2030 Agendan barne-politiken ikuspegitik.

Era berean, adierazi du Gobernuaren planak aztertu behar direla, Agenda 2030arekin lot daitezkeen planetako helburuak edo jarduera-ildoak aurkitzeko eta, horrenbestez, sinergiak sortzeko. Hori guztia koherentzia lortzeko zehazten diren politika publikoetan, eta ezain kolektiborik ez gelditzeko aintzat hartua izan gabe ikuspuntu sozial edo ekonomikotik.

Elkarrizketa Zibilerako Mahaiko lehendakariak esan du beharrezkoa dela lan-batzorde misto bat sortzea aipatu organo zibilarren barruan, EAEko Administrazio Orokorraren (Eusko Jaurlaritza) eta Mahaian dauden erakundeen eta sareen parte-hartzearekin, Euskadiko hirugarren sektorre soziala sustatzeko estrategia diseinatu eta egiteko prozesuaren kontrol eta jarraipen eraginkorra egin dezan, eta dinamizatzailea, sustatzailea

eta sostengua izan dadin estrategiaren dokumentua egiteko prozesua gidatzen ari den lantaldearentzat.

Horretarako, M<sup>a</sup> JOSÉ CANO MESÍAS (FEDEAFES) eta MANUEL MERINO PASTOR (LARES Euskadi) proposatu ditu lan-batzorde horretan hirugarren sektore soziala ordezkatuz egoteko hautagai moduan, eta Eusko Jaurlaritzako ordezkariari eskatu die esateko nor jotzen duten egokitzat batzorde horretan egoteko Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila ordezkatuz; hala ere, eta kontuan hartuta Gobernu eta EAEko Administrazio Orokorren sail-egitura aldatuko direla, proposamena gerorako utzi da. Azaldutakoa kontuan hartuta, eta boto-eskubidea duten bertaratu guztiak ados daudela, honako **ERABAKI** hau hartu da:

**Lehena:** Lan-batzorde misto bat sortzea, EAEko Administrazio Orokorren (Eusko Jaurlaritzak) eta Elkarrizketa Zibilerako Mahaian dauden erakundeen eta sareen parte-hartzearekin, Euskadiko hirugarren sektore soziala sustatzeko estrategia diseinatu eta egiteko prozesuaren kontrol eta jarraipen eraginkorra egin dezan, eta, gainera, dinamizatzailea, sustatzailea eta sostengua izan dadin strategiaren dokumentua egiteko prozesua gidatzen ari den lantaldearentzat.

**Bigarrena:** Lan-batzorde misto horretan hirugarren sektore soziala ordezkatuko duten pertsonak hauek izango dira:

- M<sup>a</sup> JOSÉ CANO MESÍAS (FEDEAFES).
- MANUEL MERINO PASTOR (LARES Euskadi).

**Hirugarrena:** Lan-batzorde mistoan EAEko Administrazio Orokorra (Eusko Jaurlaritzako Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila) ordezkatuko duten pertsonen izendapena gerorako utziko da.

## **5.- EAE-KO ETXERIK GABEKO PERTSONEN ARRETARAKO ESTRATEGIARI BURUZKO INFORMAZIOA.**

Gizarte Politiketako sailburuordeak azaldu du «Bizitegi-bazterketa larriko egoerak prebenitzeko eta murrizteko euskal estrategia (2017-2020)» dela-eta aurkeztu behar den dokumentua EAEko administrazio publikoen arteko lankidetzaren emaitza dela, zehazki, Eusko Jaurlaritzaren, foru-aldundien eta udalen arteko lankidetzarena, eta nabarmendu du horren bidez bete egin dela Eusko Legebiltzarrean 2016ko otsailaren 19an onartutako legez besteko proposamena. Eta gehitu du politikoak eta teknikoak izan direla erakundeen artean egindako bilerak, eta, beraz, proposatzen den dokumentuan jasotako estrategia ona izatea espero dutela.

Horri dagokionez, esan du dokumentua Eusko Jaurlaritzako Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaritzak (Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila) gizarte-zerbitzuei eta gizarte-politikari buruzko SIIS dokumentazio-zentroari eskatutakoa dela, esan baitzion diagnostiko bat egiteko EAEko etxerik ez duten pertsonen egoerari eta beharrei buruz, eta, aldi berean, aztertze EAEko etxerik gabeko pertsonentzako arreta-ereduaren alderdi sendoak eta ahulak.

Ondoren, «Bizitegi-bazterketa larriko egoerak prebenitzeko eta murrizteko euskal estrategia (2017-2020)» delakoari dagokion eta akta honi gehitutako «II. eranskina» osatzen duen dokumentuak dauzkan atalak azaldu ditu.

Gizarte Politiketako sailburuordea hitz egiten amaitu ondoren, ALFONSO LÓPEZ jaunak (EAPN Euskadi) hartu du hitza. Esan du ez duela gustuko nola bideratzen ari den lana; izan ere, erakundearteko batzordean strategiaren testuaren edukia eta zer-nolakoak negoziatzen badira, behin finkatuta oso zaila da gogoetak, proposamenak edo aldatzeko iradokizunak egitea. Hartara, ekarpen horiek dokumentuan finkatutako edukia tratatzen ez badute, baliteke dokumentuan sartzea, baina, bestela, ez, eta hori ohartzen delako oso zaila dela akordioak lortzea erakunde publiko desberdinen artean, eta, horregatik beragatik, oraindik zailagoa da erabakita dagoena aldatzea, are gehiago estrategia gidatu behar duten oinarritzko ezaugarriak erabakita, onartuta eta estrategia jasotzen duen dokumentura aldatuta badaude.

Aurrekoa dela eta, Eusko Jaurlaritzako Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila ordezkatzen dutenei gogorarazi die Elkarriketa Zibilerako Mahaia Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren esparruan hirugarren sektore sozialak parte-hartze instituzionala izateko gune bat dela, esparru horri eragiten dioten ekimenak kontsultatu eta eztabaidatzekoa, baina ez onartu ondoren, beti lehenago solastatu behar delako.

Eta, ondoren, adierazi du ezen diagnostikoak, alde batetik, argi utzi duela EAEn etxerik ez duten pertsonen arazo larria, kopuruak ez duelako behera egiten, eta egonkortzen ari delako, baina, bestetik, ez duela adierazten zein den etxerik gabeko emakumeen benetako egoera, emakumeok adierazten direnak baino askoz gehiago direlako, eta ia-ia gehienetan etengabeko abusuak eta bortxaketak pairatzen dituztelako, eta ez aldizka, ingurune duten segurtasun ezagatik; abusua ez da salbuespena emakume horientzat, araua baizik; salbuespena, eraso fisikoa da. Hala bada, etxerik gabeko emakumeen kopurua txikiagoa delako irudipena izateko arrazoia da sarritan emakume horietako askok fabore sexualen truke lortzen dutela ostatua etxebizitzetan.

Azkenik, strategiari atxikitzea borondatezkoa izatea kritikatu du, eta ez derrigorrezkoa, bai eta aurrekontu ekonomikorik ez edukitzea ere fenomenoari aurrea hartzeko, prebentzioak dokumentua gidatu behar zuen ildo nagusia izan behar zuelako.

Gizarte Politiketako sailburuordeak erantzun du ezen, hirugarren sektore sozialeko erakundeek ez badute beren burua ondo islatuta ikusten aurkeztutako dokumentuan, orain dela une egokia ekarpenak, gogoetak, proposamenak edo iradokizunak egiteko, oinarritzko dokumentu bat dagoelako, adostasunaren ondoriozkoa, eta uste duelako beharrezko eta aurretiazko abiapuntua delako, bidea egiten hasteko, ezin baita ezerezetik hasi. Hori esanda, nabarmendu du dokumentua ez dagoela itxita, eta, horregatik, erakundeek, dokumentua jasotzen dutenean, aztertu behar dutela, eta sakon landu, gogoz, eta ahalik eta proposamen gehien egin, Eusko Jaurlaritzak egokitzen jotzen dituen ekarpen guztiak itundu eta jasoko direlako dokumentuan, eta, horrela, denen artean, litekeen estrategiarik onena lortuko delako.

Era berean, adierazi du, alde batetik, bat datorrela dokumentuan bertan genero-kontuak gehiago nabarmentzeko behararekin, emakumearen aldagaia gehiago kontuan hartzearekin, eta, bestetik, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako prestazioen eta zerbitzuen zorroko aurreikuspenetan oinarrituta etxegabeen prebentziorako bideratu beharreko

zenbateko ekonomikoak ez direla izango dokumentuari atxikitzearen edo ez atxikitzearen araberrakoak, eta xede horretara bideratuko beharko direla, bai ala bai.

TXEMA ODRIUZOLA AZURMENDIK (FEDERPEN) galdetu du ea, estrategiaren dokumentua egitean, eta etxegabeak kuantifikatzean, kontuan hartu den balitekeela pertsona batzuek nahita aukeratu izana horrela bizitzea.

Gizarte Politiketako sailburuordeak erantzun du etxegabeentzako baliabideak inolako baldintzarik gabe eskaintzen direla, daukaten helburu nagusia baita etxebizitzarik ez duten eta kalean lo egiten duten pertsonen teiltatupean lo egiteko aukera izatea.

Horri dagokionez, ALFONSO LÓPEZ jaunak (EAPN Euskadi) esan du pertsona batzuk nahita bizi direla kalean, baina osasun mentaleko arazoek baldintzatuta, eta, horregatik, pertsona horien kolektiboa hautemateko gutxieneko jarduera-protokolo bat aurreikusi eta aktibatu ahal izango balitz, pertsona horiek arreta-zentro espezializatuetan artatzeko jarduerak egiten saia liteke.

Gizarte Zerbitzuetako zuzendaria bat dator aurreko horrekin, eta, ideia horretatik abiatuta, strategiaren dokumentuari eman nahi izan zaion ikuspegi komunitarioa nabarmendu du, eta gehitu oraindik gehiago orraztu behar dela dokumentua; izan ere, adibidez, jaso gabe daude aterpetxeetan ostatatuta egon eta kalean lo egiten ez duten etxegabeei buruzko datuak. Eta emakumeen egoera zehatzari dagokionez, adierazi du 27 emakume aurkitu direla, eta datu hori bere txikian ere kezkarria dela (are gehiago kontuan hartuta kolektibo horren inguruko konnotazio sexualak), eta, horregatik, aldagai hori (sexua) aztertu eta dokumentuan sartuko da.

Azkenik, esan du dokumentua, guztira, estrategia bideratu behar duten 67 jarraibidek osatzen dutela, eta horiek guztiak inolako arazorik gabe jartzen direla hirugarren sektore sozialaren esku, azter eta kritika ditzan; baina, Gizarte Politiketako sailburuordeak esan duen bezala, oinarritzko dokumentu batetik abiatu behar da, eta hobeto itunduta badago, baina horrek ez du esan nahi eztabaida itxita dagoenik, dokumentua guztiz irekia delako sektorearentzat.

Elkarrizketa Zibilerako Mahaiko lehendakariak amaitu du puntuari buruzko eztabaida. Nabarmendu du garrantzitsuena dela Elkarrizketa Zibilerako Mahaian dauden erakunde eta sare guztiei bidaliko zaiela «Bizitegi-bazterketa larriko egoerak prebenitzeko eta murrizteko euskal estrategia (2017-2020)» dela-eta egingo den dokumentua, sakon aztertu eta ekarpenak egiteko aukera izan dezaten.

## **6.- EAE-N FAMILIEI LAGUNTZEKO ERAKUNDEARTEKO III. PLANA (2011-2015) EBALUATZEKO PROZESUARI BURUZKO INFORMAZIOA.**

Gizarte Politiketako sailburuordeak esan du «EAEn Familiei Laguntzeko Erakundearteko III. Plana (2011-2015)» irailean hasi zela ebaluatzen, eta ebaluazioaren behin betiko dokumentua hurrengo abendurako izatea espero dela. Hori esanda, ebaluazio-prozesutik ateratzen ari diren datu hauek eman ditu:

- planaren gauzatze-mailaren ebaluazioak abiapuntutzat du batez ere Eusko Jaurlaritzako Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritzak (Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailak) plana osatzen duten neurriez, neurrietarako zenbatekoen eta abarrez emandako informazioa.



- betearazte maila kualitatiboaren ebaluazioak bete zitezen bidalitako inkestak ditu oinarri, bai eta eztabaida-taldeen eraketa eta berorietan parte-hartzea ere.
- eragina ebaluatzeko, familiek EAEn plana indarrean egon bitartean (2011-2015) izandako egoeraren bilakaera kontuan hartu da, estatistika-iturri ofizialak baliatuta.

Gehitu du ebaluazio-prozesuan egiaztatu dela planaren gauzatze-maila oso apala izan dela, eta esan du horren arrazoa izan dela Eusko Jaurlaritzak 2013an plana osatzen zuten ekintzak berrantolatu zituela, 16 ekintzatan bildu zituela (lehentasunezko zatitakoak), eta bost gauzatu direla. Aurrekoa gorabehera, beste ekintza mota batzuk egin dira, baina ez dira egokitzen eman zitzaizen garrantziaren arabera berrantolatu zirenetako ezeinetan ere.

Era berean, adierazi du ebaluazioan lortzen ari diren ondorioen artean nabarmentzen dela egokitzen dela planaren diseinua, zeharkakoa zelako, baina kudeatzen oso zaila zen, presente egon nahi zuen jarduketara-esparru materialen zabaltasunaren ondorioz. Horregatik, ondorioztatu da plan bat ondo gauzatu eta kudeatzeko ezinbestekoa litzatekeela plana estrategikoagoa izatea, ez hain planifikatua, horri esker malguagoa litzatekeelako planaren betetzea, eta, horretarako, hobe da neurriak gehiegi ez zehaztea.

Familientzako laguntza ekonomikoei dagokienez, iritziak askotarikoak dira: alde batetik, ontzat jotzen da laguntzei eustea krisi ekonomikoaren eta aurrekontu-murrizketen garaian; eta, bestetik, honako hauek kritikatzeko dira: laguntza-programak finantzatzeko zenbatekoak ez dira aski, eta kudeaketa eta izapidetzea zailak dira, bai eta laguntza-eskabideei dagozkien inprimakien betetzea ere. Eta, bereziki, familia eta lana uztartzeko laguntzei dagokienez, nabarmen uzten da uztartze-neurri eraginkorrek laguntzetatik harago joan behar dutela, zerbitzuen prestaziora iritsi arte.

Eta, kontrako iritzia biltzen duten alderdien artean, plana gauzatzeko puntu ahulak baitira, honako hauek nabarmentzen dira: ezer gutxi aurreratu da erakundeen arteko koordinazioan; laguntzen zenbatekoak ez dira aski daukaten xederako; eta gehiegi atzeratu da laguntzen ordainketa.

Azkenik, azterketa estatistikoaren esparruan, honako datu hauek eman ditu:

- prekaritate-tasa handienak oraindik ere guraso bakarreko familietan gertatzen da.
- pobrezia arrisku-egoerara aldatzeko aukera handiagoa da seme-alabak dituzten familietan.
- generoen eta familia moten arteko desparekotasuna handitzea, maila sozio-ekonomikoaren arabera.
- erantzunkidetasuna ez da batere parekoa da semeak eta alabak hazi, zaindu eta heztean.
- laguntzen zenbatekoak ez dira aski, argi eta garbi.
- gastu-arrakala handitzea familia-politikan Europako herrialdeekin alderatuta.

NATALIA DIEZ-CABALLERO ALONSO andreak (HIRUKIDE) planaren ebaluazioaz egindako azalpena eskertu du, oraindik behin betikoa ez izan arren, eta gogorarazi du ezen emandako datuak ikusita, argi dagoela Eusko Jaurlaritzak oraindik zer egin franko duela arlo honetan.

Planaren ebaluazioari buruzko eztabaida-taldeetan, Eusko Jaurlaritzak familia-politikaren alorrean egindakoaren errealitatea azaldu da, eta espero du egoera ekonomikoa lagungarria izatea familien eta haurren arloko euskal estrategiak aurrera egiteko.

Bestalde, nabarmendu du Familiaren Euskal Kontseilua ez dela osorik eratu, osoko bilkurara soilik deitzen delako, eta ez barruko batzordeetara, eratu ere egin ez direlako, eta, horregatik, hurrengo legegintzaldian Eusko Jaurlaritzak bete gabe dauden betebeharrorik betetzeko eskatu du, eta hala gertatzea espero du.

## **7.- GALDE-ESKEAK**

Elkarrizketa Zibilerako Mahaiko lehendakariak, legegintzaldia amaierara iritsi dela baliatuta, eskerrak eman dizkie administrazio publikoetako kide guztiei Elkarrizketa Zibilerako Mahaiaren, elkarrizketaren eta hirugarren sektore sozialaren alde egiteagatik. Nabarmendu du legealdi honetan funtsezko urrats bat egin dela hirugarren sektore sozialaren esparruan: Euskadin arautzen duen legea onartu egin da; eta esan du gizarte zibil antolatuaren egituraren alde egiten duela. Eta eskerrak eman nahi dizkio bereziki Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailburuari, Angel Toña jaunari, hirugarren sektore sozialaren alde egiteagatik, kontuan hartuta legealdia hasita zegoela sartu zela sailean.

Aurrekoa esanda, M<sup>a</sup> JOSÉ CANO MESÍAS andreak (FEDEAFES) galde-eskeei ekin die, eta nabarmendu du zabaldu behar dela buru-gaixotasuna duten eta genero-indarkeria jasaten duten emakumeen kopuruak gora egin duela, daukaten arrisku-egoera gainerako emakumeena baino handiagoa dela, eta, horren larrigarri, buru-gaixotasuna duten emakume horien % 42k ez duela identifikatzen jasaten duen indarkeria.

IÑIGO VIDAURRAZAGA VIDAL jaunak (HIREKIN) bat egin du Elkarrizketa Zibilerako Mahaiko lehendakariaren eskertzarekin, eta aukeraz baliatu da adierazteko zertu gabe dauden gaiak sailburu berriari ematean etiketatu egin beharko lirakeela, ekiteko edo abian jartzeko lehentasun-mailen arabera, eta ekin beharreko lehentasun handieneko gaien artean hauek sartu beharko lirakeela: gizarte-bazterketaren prebentzioa eskubide subjektibotzat hartzea eta ituntze-soziala.

Gizarte Zerbitzuetako zuzendariak esan du Kontratazio Administrazio Aholku Batzordeak hitza eman duela hilabete honetan emateko ekainean eskatu zitzaion ituntze sozialari buruzko txostena. Baina oraindik ez dute egin.

Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailburuak hitza hartu du, eta azaldu oso gustura lan egin duela Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailean bere kideekin, eta badakiela sailburu berria ere oso gustura egongo dela, eta, gainera, nabarmendu du askoz gehiago dakiela sailaren eskumen diren politika sozialeko gaien buruz. Gainera, eta hala nahi badu, orain gaian lan egiten ari diren pertsonen sailean jarraituko dute.

Bera ez zen bereziki aditua hirugarren sektore sozialean, eta, horregatik, aitortu du taldeak eman diona eman duela, hori izan dela bere ekarpena, taldeko kideek oso ondo bete dituztelako zegozkien eginkizunak; horregatik, oraingo honetan esker ona adierazi nahi die taldekideei. Baina sailburu berria gizarte-politiken esparrutik dator, eta, horregatik, ziur dago orain arte egindakoa hobetuko duela, hori delako, hain zuzen ere, Eusko Jaurlaritzara etortzeko arrazoia, dagoena hobetzea. Horregatik doa gustura, bere buruarekin eta egindako lanarekin, ahal izan duen guztia egin duelako, eta zekien guztia eman duelako.

Orain, lanean jarraitzea egokitzen zaio, baina esparru ekonomikoan, enpresarenean, eta unibertsitate-irakaskuntzan.

Azkenik, esan du gaurko saioan modu kritiko samarrean heldu zaiela 4., 5. eta 6. gaiei, eta badoan honetan ohartzen dela gai horiek mahai gainean jarraituko dutela laster hasiko den legegintzaldian, orain bezala geroan ere gauzatu beharreko erronka garrantzitsuak izango direlako, eta, gainera, gobernuan erronka horiek lorpen bihurtzeko gogoia dagoelako. Hala ere, puntu honetan nabarmendu nahi du beraienez, Gobernuan lan egiten dutenentzat, aurrekontuak berak ezartzen duela muga, eta ez lan egiteko gogoak, eta kontuan hartu behar dela lehengo zortzi sailen ordean orain sailak hamaika izango direla, eta, horrenbestez, esku-hartzaile gehiago izango direla sail bakoitzerako hornidura ekonomiko handiagoa lortzeko lehian.

Alde horretatik, esan du kontuan hartu behar dela Eusko Jaurlaritza ematen zaion aurrekontu ekonomikoaren kudeatzailea dela, ez baitu eskumenik zerga-arloan, eta zerbitzuak ematean banatzea dagokiola.

Eta, familia eta lana uztartzeari dagokionez, Elkarrizketa Zibilerako Mahaiak gizarte-eragileengana jo beharko luke, eta mahai gainean jarri uztartze horretarako zailtasunek eragiten dioten kezka, uztartzen laguntzen duten neurri onak izan gabe ezinezkoa izango delako jaiotza-tasa handitzea, ez baita denborarik izango seme-alabak hazteko, zaintzeko, hezteko... Eta ikusarazi behar zaie garrantzitsua dela uztartze-politika ona eramatea enpresetara, orain arte beren ahaleginetan kezka bakarra izan dutelako: soldatak handitzea eta lanaldia murriztea, lanaldia malgutu beharrean.

Amaitzeko, esan du prest dagoela ahal duen neurrian laguntzeko bertan dauden guztiei etorkizunean behar duten guztian.

Eta beste gairik ez dagoenez, Elkarrizketa Zibilerako Mahaiko lehendakariak adierazi du saioa amaitu behar dela, 14:30ak direla.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko otsailaren 14a.

O. E.

**Gonzalo Rodríguez Aguirregoitia jauna**      **Miguel Ángel Hurtado Pedroso jauna**  
Elkarrizketa Zibilerako Mahaiko lehendakaria      Elkarrizketa Zibilerako Mahaiko idazkaria.